

KONTROL MOZIOA

Atxilotuen jatorriagatiko datuak ematearen inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Segurtasuna eta segurtasun pertzepzioa herri-erronka dira ezbairik gabe, estrategia partekatuak ezinbesteko dituztenak; auzi hauek, gainera, konplexuak eta delikatuak izanagatik, sakontasuna eta zorrotasuna behar dituzte, eta urrats bakoitza tentuz eta gehiengoan babesarekin ematea. Azken hamarkadetan, segurtasunari dagokion politika informatiboarekiko kontsentsu zabala izan da gure herrian.

Atxilotuen eta identifikatuen jatorria publiko egiteak aipatu kontsentsu politiko eta soziala hausten du. Aditu askoren arabera, jatorria jakiteak gutxi laguntzen du delitu baten zergatia azaltzen, bestelako faktore sozioekonomiko batzuen ondoan. Aldiz, delitua egin duenaren jatorria publiko egiteak pertzepzio publikoan modu negatiboan eragin dezakeela diote kolektibo migratuekin lanean diharduten elkarteek, jokaera konkretuetatik kolektibo osoak susmagarri gisa hautematea ekar baitezake. Bestalde, arrisku horiek hartzea justifikatu lezakeen segurtasun-arrazoi objektiborik ez dago, atxilotuen jatorria publiko egiteak ez baitu donostiarren segurtasunean hobekuntzarik ekarriko. Horregatik guztiagatik, azken hamarkadetako kontsentsura itzuli behar dugu ahalik eta azkarren.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n 1 2011-06



Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako
KONTROL MOZIOA:

- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez ditzan atxilotuen jatorriagatiko datuak publiko egin.

Donostian, 2026ko otsailaren 20ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia